

2011 METCA ofizialki inauguratu da.

2011/01/20

Aurten, Miñanoko Parke Teknologikoak bere ateak ireki ditu 28 ikasle berrik METCA ingeniari masterra egin dezaten. Gazteak, Espainiakoak naiz atzerrikoak, ingeniartzako profil ezberdinetakoak dira.

Lehiaketa Automobilistikoko Espezializazio Teknikoko Masterra EPSILON EUSKADI eta Mondragon Unibertsitatearen arteko lankidetzaren emaitza da. Master hau aitzindaria da eta urteak aurrera egin ahala erabateko erreferentzia bilakatu da. Masterrak teoria eta praktika uztartzen ditu, etorkizuneko ingeniari belaunaldiek maila goreneko errendimendua atera dezaten teknologia eta berrikuntza oinarritzko diren arloetan, lehiaketa automobilistikoan nahiz beste edozein arlotan.

Masterraren helburua ikasleei diziplina anitzeko formazioa ematea da eta gai hauek landuko dira besteak beste: aerodinamika, ibilgailuen dinamika, transmisioa, kalkulu eta simulazioa, CAD, programazioa, pista ingeniari eta taldeen zuzendaritza. 1.700 ordu baino gehiagoko iraupena izango du eta klaseez gain seminarioak, automobilaren lehiaketa eta industriarekin lotura duten enpresetara bisitak eta EPSILONeko taldeetan praktikak izango dira.

Hilabete honetatik abendura bitartean, ikasleak gelditu gabe ibiliko dira. Masterrak irauten dituen 11 hilabeteetan, bertako nahiz nazioarteko profesionalen eskutik teoria hainbat gairi buruzko seminarioak eta praktikak izango dituzte. Amaitzeko proiektu zorrotz bat ere egin beharko dute.



METCA ingeniari masterra hasi da